

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko martxoaren 20an egindako bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

BERRIAK ELKARTEAREKIN HITZARMENA BERRESTEA ETA 2024KO 2. ORDAINKETA EGITEA

Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea sustatzea eta, bide horretatik, elkarte babestea xede duen markoa adostu dute bi aldeek: Hernaniko Udalak eta Berriak elkarteak. Eta, marko horren baitan 4 urterako hitzarmena sinatu zuten 2023 urtean, 2023ko apirilaren 20an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak hartuko erabakiari jarraiki.

Testu inguru horretan, Berriak, Hernaniko Merkataria eta Ostalarien Elkartearen asmoa da Hernaniko udalerria merkataritza, zerbitzu eta aisialdi gune gisa dinamizatzea, kontsumitzaileentzako erakargarri eginez eta zerbitzu pertsonalizatua emanez.

Helburu horiek erdiesteko 2025 urteko jarduera-plana aurkeztu du Berriak elkarteak eta udalerrian antolatzen diren ekintzen partaide egin nahi ditu hernaniar guztiak.

Era berean, 2024 urteko jarduera-planari lotutako justifikazioa egiteko memoria eta dokumentazioa aurketu du Berriak elkarteak.

Berriak elkarte irabazi asmorik gabekoa da eta Hernanin dagoen merkataritza eta ostalaritza elkarte bakarra da. Merkatarien, ostalarien eta herriko zerbitzuen sektorearen ordezkartzan aritzen da hauen interesak defendatuz. Horretarako lan-mahai eta foroetan parte hartzen du, banakako aholkularitza eta kudeaketa profesionala eskaintzen du, doako formakuntza programak sortu edo bideratzen ditu eta animazio eta dinamizazio ekintzak burutzen ditu, besteak beste.

Ikusita, Udal Teknikariaren txostenak.

Ikusita, Kontu-hartzailearen txostena.

Kontuan hartu da Toki garapen batzordeak 2025eko martxoaren 13an aho batez emandako irizpena

Horiek horrela Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki du onar dezan:

- 1- 2024 urteko justifikazioa ontzat ematea eta bigarren ordainketa egitea (10.800,00 €).
- 2- Herriko merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorea sustatzeko Lankidetzaren Dirulaguntza Hitzarmena berrestea, Berriak elkartearen alde eta dirulaguntzaren % 60 (16.200,00 €) aurrerapen gisa ordaintzea.

Epea: gehienez 4 urte: 2023, 2024, 2025 eta 2026.

Kontusaila: 1 1520.481.01.431.00 2025 (4552)

Kreditua: 27.000,00 €

Horren berri ematen dizugu dagozkion ondorioetarako. Bestetik, administrazio-bidea amaitzen duen egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu Donostiako administrazioarekiko auzien epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita, administrazioarekiko auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 legeko 114.c) artikuluekin bat etorritik.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko idatz-zatian adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez diezaiokezu ebazpena eman zuen organoari hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Hori guztia aurretik adierazitako urriaren 1eko 39/2015 legearen 123 eta 124 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta zure eskubideak babesteko egoki irizten dizkiozun egintza edo errekursoak aurkezteari ezertan galderazi gabe

Hernanin 2025eko apirilaren 01ean

Patxi Jagoba Lapatza-Gortazar Bengoa

Hernaniko udal-Idazkaria

Jakinarazpen hau elektronikoki sinaturik dago: egiazkotasuna eta osotasuna egiazta dezakezu azpiko QR kodea edo egoitza elektronikoaren bitartez

Gudarien plaza 1 – Tel. 943 337 000 – Fax 943 55 26 96 – e-mail: hhz@hernani.eus



EKS | CSV: **ESKU516f8265-14ee-4f30-a418-00066d890b04**

Egiatzatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=04010>